

**Ayuntamiento de Barañáin**  
**Barañaingo Udala**  
Navarra – Nafarroa

Plaza Consistorial, s/n.  
Udaletxeko plaza zk./g.  
31010 BARAÑAIN  
(Navarra–Nafarroa)  
Telf:948 286 310  
Fax: 948 181 308  
[www.baranain.es](http://www.baranain.es)

**BARAÑAINGO UDALAREN IDAZKARITZA-LANPOSTUA ALDI BATERAKO ETA ADMINISTRAZIO-ARAUBIDEAN BETETZEKO BALDINTZAK ETA ORDEZKAPEN-ZERRENDA OSATZEA**

**1. oinarria Arau orokorrak**

Deialdi honen helburua da Barañaingo Udalaren Idazkaritza-lanpostua aldi baterako betetzea lehiaketa-oposizio bidez, Idazkaritzari ezinbestean dagozkion eginkizun publikoak garatze aldera udalerrian ondoko egoera hauen aurrean: oporrak modu jarraituan eta elkarren segidan, baimenak eta erretiroak. Aurreikusita dago 2018ko abenduaren 4tik aurrera egingo dela aldi baterako kontratazioa. Deialdiaren beste helburua izangai-zerrenda bat osatzea da lanpostu horretan alde baterako jarduteko.

Egin beharreko hautaketa-probak 6. oinarrian ezarritakoak dira.

Kontratua aldi baterako izango da, administrazio-araubidean, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren 88 b) artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoarekin bat; kontratua bukatuko da ordezkapena eragin zuten arrazoiak amaitzen direnean edo, edozein kasutan, plaza behin betikoz betetzen denean arauzko prozedura bidez.

Halaber, Nafarroako Administrazio Publikoetako langileen kontratazioa administrazio-araubidean arautzen duen irailaren 28ko 68/2009 Foru Dekretuaren 8. artikulua edozein arrazoi eragingo du kontratuaren ezeztapena.

Bi hilabeteko probaldia ezarriko da, eta alderdietako edozeinek amaitu ahalko du, alde bakarretik, kontratua aldi horretan zehar.

Lan-jarduna osoa izango da, eta lan-ordutegia, administrazio deitzaileak erabakitakoa. Edonola ere, zerbitzuaren beharretara egokituko da ordutegia beti, eta, hortaz, aldatu egin ahalko du administrazioak .

Lanpostuaren oinarritzko ordainsaria A mailakoa izango da, ordainsarien behin-behineko araubideak ezarritakoarekin bat; dena den, Barañaingo Udalaren plantilla organikoan jasota egon litezkeen sari osagarriak ere ordainduko lirateke.

Gaiztatu baina lanpostu hutsa lortu ez dutenekin, zerrenda bat osatuko da. Barañaingo Udalak Idazkaritza-lanpostua betetzeko erabili ahalko du zerrenda lanpostu hori okupatzen ari denak ezin badu lan egin, oporrak, baimenak, bajak edo beste edozein arrazoi direla eta, deialdi honetako 8. eta 9. oinarriek ezarritakoarekin bat. Horretarako, puntuazio-hurrenkerari jarraituko zaio, zorrotz-zorrotz.

Aldi baterako kontrataziorako izangai-zerrenda hori gutxienez bost urtez egongo da indarrean, edo hura agortu arte, edota lanpostua behin betiko betetzeko hautaketa-prozedura espezifikoak egiten hasi arte edo aldi baterako kontratazio-zerrenda berri bat eratu arte.



## **2. oinarria Izangaiei betekizunak.**

Lanposturako izangaiek betekizun hauek bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epemugan:

- a) 16 urte izan eta gehieneko erretiro-adinera iritsi gabe egotea, baita Espainiako nazionalitatea izatea ere.
- b) Ondoko titulazio akademikoetako bat edo dagozkien gradu-titulua edo haien guztien baliokideak izan edo eskuratzeko moduan egotea proben eguna iritsi aurretik:
  - Gradua Zuzenbidean
  - Gradua Zientzia Politikoetan eta Administrazioan edo lizentziatura Soziologian edo lizentziatura Zientzia Politikoetan eta Soziologian.

Goian aipatutako titulazioen ikasketa baliokideak argudiatzen dituzten izangaiek baliokidetasun hori aitortzen den legezko edo erregelamenduzko xedapena aipatu beharko dute, edo Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak xede horretarako emandako ziurtagiria aurkeztu.

Atzerrian lortutako tituluak badira, haien homologazioa egiaztatzen duen egiaztagiria izan behar da.

- c) Lanpostuan aritzeko beharrezko gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.
- d) Funtzio publikoetarako desgaituta edo zigortuta ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizita egotea.
- e) Enplegu baten edo enplegu hobe baten eskatzaile gisa agertzea edozein enplegu-bulegotan.

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denerako bete behar dira goiko betekizunak, baita deialdiaren unean eta zerbitzuak eman bitartean ere.

## **3. oinarria Prozedura.**

Ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuak onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Araudiaren 42. artikulua ezarritakoarekin bat, kontratazioa ahalik eta azkarrena izatea ahalbidetu behar dute aldi baterako langileak hautatzeko prozesuek.

Aintzat hartuta idazkaritza-lanpostuaren funtzioak uztailaren 2ko Nafarroako Administrazio Lokalar buruzko 6/1990 Foru Legearen 239 eta 239 bis artikuluetan jasotakoak direla, hau da, organoen ekintza eta akordio guztien fede publikoa ematea eta entitate lokalen organoei lege-aholkularitza ematea, deialdiaren 2. oinarriaren baldintza eta betekizunak betetzen dituzten enplegu-eskatzaileen (enplegu hobe baten eskatzaileak barne) zerrenda eskatuko zaio Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, udal-eskumenen egunerokoa eta haien kudeaketa ez etete aldera, interes orokorraren eta auzotarrei zerbitzua ematearen defentsan. Zerrenda horretan sartutakoek hautapen-probetan parte hartu ahaliko dute.



**Ayuntamiento de Barañáin**  
**Barañaingo Udala**  
Navarra – Nafarroa

Plaza Consistorial, s/n.  
Udaletxeko plaza zk./g.  
31010 BARAÑAIN  
(Navarra–Nafarroa)  
Telf: 948 286 310  
Fax: 948 181 308  
[www.baranain.es](http://www.baranain.es)

Edozein enplegu-bulegotan enplegu baten edo enplegu hobe baten eskatzaile gisa agertzen diren pertsona guztiak onartuko dira hautapen-prozesurako, baldin eta eskabidearen bidez egiaztatzen badute eta goiko betekizunak betetzen badituzte.

#### **4. oinarria Eskabideak aurkeztea.**

Deialdian parte hartzeko eskabidea Barañaingo Udaleko Erregistroan aurkeztu ahalko da, edota urriaren 1eko 39/2015 Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 16.4. artikulua aurreikusten dituen moduetan. Barañaingo Udaleko Erregistroa ez den beste modu batean aurkezten bada, ondoko helbide elektronikoa eman beharko da horren berri, eskabideak aurkezteko epearen barruan: [asesoriajuridica@baranain.com](mailto:asesoriajuridica@baranain.com).

Eskabidea posta-bulego batean aurkezten bada, gutun-azal irekian aurkeztuko da, postako langile batek data eta zigilua jar diezaion ziurtatu aurretik. Horrez gain, horren berri eman beharko da mezu bat bidaliz aurreko helbidera. Eskabideak aurkezteko epearen barruan bidali beharko zaio mezu elektronikoa udalari.

Eskabideen edukiak deialdian argitaratutako ereduarekin bat etorri behar du (I. eranskina).

Interesdunek 2018ko urriaren 15era arte aurkeztu ahalko dute eskabidea, 13:00ak arte.

Oinarriak iragarki-oholean eta Barañaingo Udalaren webgunean ere argitaratuko dira: [www.baranain.es](http://www.baranain.es) eta [www.baranain.es/eu](http://www.baranain.es/eu).

Ondokoen fotokopia aurkeztu beharko dute izangaiek, eskabidearekin batera: Nortasun Agiri Nazionala, langabezia-txartela edo lan hobe baten bila adierazten duena, eskatutako titulazioa (edo, eduki ezean, eskabideak aurkezteko epearen barruan lortzeko moduan dagoela egiaztatzen duen agiria) eta baloratzeko aurkeztutako meritua.

19,20 euro ordaindu izanaren egiaztagiria ere aurkeztu beharko dute, eta hauxe azalpenean jarri: espediente formalizatzeko eta azterketa-eskubideetarako tasa. Ondoko kontu-zenbakian sartuko da: ES 84 2100 5181 14 2200064922. Tasa ordaintzen ez bada, izangaia baztertu egingo da. Eskaera Herritarren Arretarako Bulegoan zuzenean aurkezten duten izangaiek une horretan bertan eskudirutan ordaintzen ahal dute tasa.

Izangai elbarriek elbarritasunaren egiaztagiria aurkeztu beharko dute, proban parte hartzeko eskabidearekin batera. Organo eskudun batek egin beharko du, eta ziurtagiri medikoa jaso beharko du, elbarritasuna lanpostuan normaltasunez aritzea galaraziko lukeen gaixotasun edo gabezia fisiko edo psikikoa ez dela egiaztatzen duena.

Eskabideak aurkezteko epea igarota, onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda jakitera emango da iragarki-oholean zein webgunean, eta 3 egun balioduneko epea emango da erreklamazioak aurkezteko edo aurkeztutako eskabideetako akatsak konpontzeko.

Inor baztertuko ez balitz, behin betiko zerrenda jakitera emango da.

Aipatutako epean alegaziorik aurkezten bada, haiek ebatzi, eta ebazpena emango du Alkatetzak, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onetsiko duena. Iragarki-oholean zein Barañaingo Udalaren webgunean ([www.baranain.es](http://www.baranain.es)) eta



**Ayuntamiento de Barañáin**  
**Barañaingo Udala**  
Navarra – Nafarroa

Plaza Consistorial, s/n.  
Udaletxeko plaza zk./g.  
31010 BARAÑAIN  
(Navarra–Nafarroa)  
Telf:948 286 310  
Fax: 948 181 308  
[www.baranain.es](http://www.baranain.es)

[www.baranain.es/eu](http://www.baranain.es/eu)) jakitera emango da, aurreikusitako hautapen-probak egiteko egun, ordu eta tokiarekin batera (dei bakarra egingo da probetarako).

Onartutako izangaien zerrendan azaltzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatutako eskakizunak betetzen dituztela aitortzen zaiela pertsona interesdunei. Kontrataziorako deitzean izangaiek aurkeztu behar duten dokumentazioa azertzen denean, ondorioztatzen bada eskatutako eskakizunen bat denboran edo forman ez dutela betetzen, pertsona interesdunek deialdi honetan parte hartzearen ondorioz izaten ahal dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

## 5. oinarria Kalifikazio-epaimahaia.

Kalifikazio-epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua: Oihane Indakoetxea Barberia, Barañaingo Udaleko alkatea. Ordezkoa: Ainhoa Oyaga Azcona.
- 1. kidea: Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak izendatutakoa Ordezkoa: Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuak izendatutakoa
- 2. kidea: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak izendatutakoa Ordezkoa: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak izendatutakoa
- 3. kidea: Ordezkarri sindikala. Ordezkoa: Ordezkarri sindikala.
- Kide-idazkaria: Enrique Mateo Sanz, Barañaingo Udaleko idazkaria. Ordezkoa: Juan Jesús Soria Gulina, Barañaingo Udaleko aholkulari juridikoa.

Kalifikazio-epaimahaiaren kide-idazkariak aktak egin, eta epaimahaikide guztiek sinatu beharko dituzte.

Epaimahaia ezin izanen da eratu eta bere jarduna ez da baliozkoa bere kideen gehiengo osoa aurkezten ez bada. Nolanahi ere, epaimahaia ezin izanen da eratu epaimahaiburua eta idazkari-lanak egingo dituen aurkezten ez badira.

Epaimahaiak ebatziko ditu, gehiengo bidez, deialdiaren oinarrien interpretazioaren eta aplikazioaren inguruan planteatzen diren auzi guztiak. Berdinketa izanez gero, epaimahaibuaren kalitateko botoak erabakiko du.

Kalifikazio-epaimahaiko kideek uko egin behar diote beren karguari, eta Barañaingo Udalari jakinarazi, legean uko egiteko ezarritako arrazoiak tartean badaude. Halaber, izangaiek epaimahaikideak ez onartzeko eskubidea dute baldintza horiek tartean badaude. Uko egiteko eta ez onartzeko lege ezarritako arrazoiak aplikatzean aldaketaren bat gertatuko balitz epaimahaiaren osaeran, aldaketa hori onartutako eta baztertutako izangaien zerrendekin batera jakitera emango da.

## 6. oinarria. Probak

**6.1.- Proba teorikoa.** 6.1.- Ariketa bakarra izango da: 40 galdera teoriko-praktikoz osatutako galdetegi bati erantzutea; galderak test-motakoak izango dira, gai-zerrenda honetako edukiei buruzkoak:

- 1978ko Espainiako Konstituzioa.



- Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa.
- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea.
- Toki Araubidearen Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.
- Toki Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamendua onetsi zituen urriaren 18ko 280/1190 Foru Dekretua.
- Toki Entitateen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamendua onetsi zuen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua.
- Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea.
- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea.
- Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea.
- Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onetsi zuen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua.
- Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea eta hura garatzeko araudia.
- Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onetsi zuen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua eta hura garatzeko araudia.
- Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea eta hura garatzeko araudia.

Probaren gehieneko puntuazioa 40 puntu izango da, eta epaimahaiak erabakiko du zenbat denbora dagoen egiteko. Gutxienez 20 puntu lortzen ez duen oro baztertu egingo da.

Galdetegiko galdera guztiek hiru aukera izanen dituzte erantzunetan, baina bakarra izanen da balekoa. Asmatutako erantzun bakoitzak puntu bat balioko du. Galdera guztien banakako balorazioa berdina izanen da. Erantzun okerrekin ez dute punturik kentzen.

**6.2.- Proba praktikoa.** Kasu praktikoa bat jorratuko da. Txosten juridiko bat idatzi beharko dute epaimahaiak agindutako denboran eta gaiari buruz (gaia goian jasotako edukiei buruzko izango da). Gehieneko puntuazioa 40 puntu izango da, eta gutxienez 20 puntu lortzen ez duen izangai oro baztertu egingo da. Lege-testuak erabili ahalko dira, komentariarik gabeak, paperezko euskarrion soilik. Epaimahaiak erabakiko du zenbat denbora dagoen egiteko.


**6.3.-** Gutun-azal itxien sistema erabiliko da probak egiteko, eta elkarren segidan egingo dira biak.

Deialdiak dei bakar bidez egingo dira. Izangaiek Nortasun Agiri Nazionalarekin, pasaportearekin edo gida-baimenarekin joan behar dute deialdira, eta oposiziotik kanpo geldituko dira azaltzen ez diren edo beren nortasuna aipaturiko agiritako baten bidez egiaztatzen ez dutenak.

Hautapen-probak egin bitartean, beharrezko egokitzapenak egingo dira, denborari eta baliabideei dagokienez, halakorik eskatu duten elbarrituentzat.

## **7. oinarria. Lehiaketa-aldia.**

Izangai guztiek dokumentu bidez egiaztatu beharko dituzte oinarri hauekin bat argudiatutako merituek, eskabidea aurkeztean (4. oinarria).



Goiko oinarrian aurreikusitako probak egin bitartean izangaiek egiaztatutako merituak baloratuko ditu epaimahaiak, ondoko baremoarekin bat (gehieneko puntuazioa 20 izango da); hona baremoaren irizpideak:

- 2 puntu Nafarroako toki-entitateren batean idazkari gisa aritutako urte bakoitzeko (gehieneko puntuazioa: 10).
- 1 puntu edozein administrazio publikotako lanpostuetan aritutako urte bakoitzeko, baldin eta horretarako ondoko lizentziaturetako bat eskatu bazen: Zuzenbidea, Zientzia Politikoak eta Administrazioa, Soziologia edo Zientzia Politikoak eta Soziologia (gehieneko puntuazioa: 5).
- Idazkaritza-lanpostuaren berezko edukietan espezializatu edo perfektionatzeko ikastaroak (gehieneko puntuazioa: 5):
  - 5 eta 15 ordu bitarteko ikastaro bakoitzeko: 0,5 puntu
  - 15 orduetik gorako ikastaro bakoitzeko: 1 puntu
  - Ez dira aintzat hartuko 5 orduetik beherako ikastaroak.

Goiko balorazio-irizpideak aplikatze aldera, ondoko arau hauek kontuan hartuko dira:

- Baloratu beharreko urteak osoak ez balira, proportzionalki baloratuko dira.
- Denbora-tarte berdinetan egindako zerbitzuak, baremo-multzo berekoak badira, ez dira bi aldiz ebaluatuko.

## **8. oinarria Emaitzak jakitera ematea eta kalifikazio-epaimahaiaren proposamena**

Ariketak kalifikatuta eta merituak baloratuta, epaimahaiak emaitzak jakitera emango ditu probak egin ziren tokian eta Barañaingo Udalean. Zerrenda Barañaingo Udalaren webgunean ere jarriko da kontsultatzeko moduan: [www.baranain.es](http://www.baranain.es) edo [www.baranain.es/eu](http://www.baranain.es/eu).

Halaber, epaimahaiak puntuazio altuena lortu duen pertsona kontratazeko proposamena luzatuko dio administrazio deitzaileari. Proposamena loteslea izango da administrazio deitzailearentzat. Hautatutako pertsonak 2018ko abenduaren 4an hasi beharko du lanean.

Ekitaldi horretan, gairitu baina lanpostua lortu ez duten pertsona guztien zerrenda bat ere proposatuko du, haiei deitzeko etorkizuneko kontratazioetan; puntuazio-hurrenkeran (altuenetik baxuenera) jarriko dira, zorrotz-zorrotz.

Inkorporazioa gertatuko ez balitz (nahikoa justifikatutako kasuetan izan ezik) edo puntuazio altuena lortutako pertsonak uko egingo balio administrazio deitzaileak kontratatzeari, kontratazioa onartzeko adostasuna erakutsiko duen hurrengo izangaia kontratatu ahalko du organo eskudunak; horretarako, hautapen-prozesuan lortutako amaierako puntuazio-hurrenkerari jarraituko zaio, zorrotz-zorrotz.

## **9. oinarria. Ordezkapen-zerrendaren funtzionamendua**

Ordezkapen-zerrendan daudenei Barañaingo Udalean sor litezkeen premien arabera deitu ahal izango zaie, deialdi honetako oinarrietan eta aplikaziozko gainerako araudian xedatutakoaren arabera.



**Ayuntamiento de Barañáin**  
**Barañaingo Udala**  
Navarra – Nafarroa

Plaza Consistorial, s/n.  
Udaletxeko plaza zk./g.  
31010 BARAÑAIN  
(Navarra–Nafarroa)  
Telf:948 286 310  
Fax: 948 181 308  
[www.baranain.es](http://www.baranain.es)

Honela egingo da:

- a) Ordezkapen-zerrendakoek telefono-zenbaki bat eta helbide elektroniko bat, gutxienez, eman beharko diote Barañaingo Udalari, interesatuarekin harremanetan jarri ahal izan dadin. Datu horiek eguneratuta egon beharko dute beti.
- b) Bitan, gutxienez, saiatuko da udala harremanetan jartzen kontratuaren xede izango den bakoitzarekin, 24 orduko tarte batean, interesatuak berak emandako harremanetarako datuen bidez.
- c) Horregatik, izangai bat lokalizatu ezin bada, zerrendako hurrengoari edo hurrengoei deituko zaie, eskainitako lanpostua bete arte.

Harremanetan jartzea lortu ez izanak ez du ekarriko tokia galtzea zerrendan.

#### **10. oinarria. Errekurtsoak.**

Deialdi honen, beraren oinarrien eta deialdia aplikatzeko ekintzen aurka honako errekurtso hauek jartzen ahal dira:

- a) Berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean ebazpen hau jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean errekurritutako ekintza edo akordioa jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean errekurritutako ekintza edo akordioa jakinarazi edo argitaratu zen egunetik.

Kalifikazio-epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsoa jartzen ahal da deialdia egin duen udal-organoaren aurrean, hilabeteko epean errekurritutako ekintza edo akordioa argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.